

# GEO<sup>ren</sup> Mundua

TANZANIA



Lurreko lekurik askotariko, jori eta ederre-  
tako batean gaude, zabaldi berde eta bost  
milioi urteko sumendi kraterren artean. Era  
guztietako paisaje, fauna eta etniak biltzen  
dira bertan. Lehen begiratuan, hauxe da ziur  
asko Edengo azken hondarretako bat, izadiko  
paradisu bat, baina azal idilikoaren azpian  
arazoak zelatan daude. Lehen, zientzialariek

galdutako animalia espezie  
zaharren eta gure arbaso  
batzuen eskeletoak saminez  
behatu besterik egiten ez zuten  
lekuan, gaur egun, galtzeko  
zorian dauden azken sorkari  
aleei so daude, batez ere erri-  
nozeroari. Tanzaniako paisajea  
osatzen duten Olduvaiko  
Zintzuraren eta zabaldi ta  
kraterren mirariak biltzen ditu  
dokumental honek, baita  
hango etniak eta fauna ere,  
hipopotamoak, ñuak, zebrak,  
lehoiak eta elefanteak barne.

Talde etnikoetako bat masaiak  
dira, Euren betiko artzaintza lekutik beren  
gaur egungo bizimodura gidatzen gaitu  
kide zaharrenetako batek, aurre egin behar  
dieten arazoak, toki babestu honetako  
lurra eta baliabideak lortzeko lehia basa-  
tiak zirikatatuak, azalduz. Tokia zaintzeko  
dauden profesional eta zientzialariek  
masaiekin batera egiten dute lan irau-  
narazteko irtenbideak aurkitzen, baina ez  
dira euren jarrerak sarri bat etortzen tri-  
bukoen desirekin. Serengetiko zabaldi eta  
Ngorongoroko kraterrean zehar jarraitu genien euren arazo nagusietako batzuk aztertuz bitarte-  
an: errinozeroaren galtzea, isileko chiza eta faunaren bahesa. Honetan dago dilema: nola utzi  
lurralde honetako biztanleei, batez ere masai, euren jatorrizko sehaskan bizirik irauten eta aldi  
berean bertako fauna salbatu.

Lurreko txokorik ederreneko bat da Tanzania, baina Afrikako kontinenteak bizirik irauteko  
arazo korapilatsuenetako bati egin behar dio aurre.

# GEO<sup>ren</sup> Mundua


TANZANIA



# Arbasoen Harana


TANZANIA

# GEO<sup>ren</sup> Mundua



# TANZANIA

## Arbasoen Harana



KULTURA SAILA



ARGITARIAITZAILEA  
CAN BHEVA, 35-36  
08014 BARCELONA

